


Ikus-entzunezkoen agintea non?





10-17

AURKIBIDEA

Iritzia Maite Asensio **3**

Elkarrizketa 'Postalak', bidaiatzeko proposamen berria **4-7**

Errezeta Aintzane Artola **8**

Asteko Gaia Plataforma digitalen eragina ikus-entzunezkoetan **10-17**

Sapere Aude Ane Amundarain **18-19**

Begirada Grafikoa Julen Iztueta **20**

Iritzia Onintza Lasa **21**

Agenda **23-25**

Erreportajea Txotxongilo zuhaitzak norberarekin adiskidetzeko **26-29**



26-29



18-19



Azaleko irudia
Ibai Luque Eizagirre

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83€

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai erabiltzaile eta
lana eskatzen

Bikam

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goizatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.



Gipuzkoako
Foru Aldundia



MAITE ASENSIO
HEZITZAILEA

Nork esan zuen guraso izatea erraza zela?

Goizeko 06:30ean jo du etxean iratzargailuak. Nekez jaiki naiz, izan ere ez nintzen goiz jaikitze programatua jaio. Esnatzeko goizeroko dutxa azkarra hartu eta banao eguneroko martxari ekitera.

07:00tan seme zaharrena esnatzeko lehen saiakera, gosaria berotzen jarri eta bigarren saiakera egitera noa, «jaikitze ordua da, mugi», esaten diot, ezer ere ez. Tarte bat utzi eta banao berriz, baina badator lo aurpegiarekin gosaltzera. Elkarrekin gosaltzen dugu, hitz egiteko gogo gutxi izaten dugu goizetan biok baina saiakera txiki bat egin eta bakoitza bere zereginetara. Ikastolara joateko ordua iritsi zaio, ondo pasatzeko esanaz agurtu eta banao, orain etxeko txikia esnatu behar dut eta honi gehiago kostatzen zaio. «Egun on! Jaikitze ordua», esaten diot. Berriz ere bizpahiru bisita egin behar izaten dizkiot jaikitze. Baina goiz jaiki arren, gosaltzera eseri baino lehen mila istorio, janzteko beste mila, honela, amaren pazientzia goizean goizetik proban jartzen. «Mugi-mugi, lagunak joango zaizkizu eta!!». Goizero tentsio batean, haurra garaiz bidaltzeko saiakerak egin eta lanera joateko nire gauzak prestatzen ditudan bitartean. Azkenean 08:35ak iritsi dira, bi semeak ikastolako bidea hartuta eta lanera joateko txanda. 06:30ean jaiki naiz baina 09:30ak baino lehen ez naiz lanera iritsiko, ez dakit nola egingo dudan nire lanak amaitu eta arratsaldean haurrengana garaiz iristeko. Eguerdian seme gazteena amonek hartuko dute txandaka, eskerrak laguntza dugun! Zaharrena berriz bakarrik bazkalduko du. Telefonoz deitzen dit lanera eta arratsaldean dituen kontuen errepasoa egiten dugu. Lanetik korrika atera eta banao

ikastolara, 17:00ak iritsi dira eta zirkurako bidea hartu dugu, Adunan egon behar dugu 17:30erako. Bidean eguneko gora-beherak kontatzen dizkiogu elkarri eta 19:00etarako han izango naizela esanaz agurtzen dut. Ordu eta erdi dut, enkarguak egiteko aprobetxatzen dut tarte hori eta 19:00etarako han naiz, haurraren zain. Etxera goaz, eta aparkatzeko leku bila ordu erdi pasa ondoren etxean elkartzen gara guztiak. Dutzak, etxeko lanak, afaria eta biharko bazkaria, guztia dugu egiteko. 20:30ean eseri gara afaltzera. Elkarrekin afal-

Urteetan familia kontziliazioagatik murrizketak eskatu izan ditugu bikoteak eta biok. Nola uztartu bestela hau guztia?

du ondoren tarte bat lasai eta lotara. 22:00etan lo daude, isiltasuna dago etxean, ni leher eginda nago eta hurrengo egunean berriz erritmo berdinean ekin beharko diot egunari.

Urteetan familia kontziliazioagatik murrizketak eskatu izan ditugu bikoteak eta biok. Nola uztartu bestela hau guztia? Egun bat gure etxean honelakoa da, baina zorionez bi gara eta bion artean egiten diogu aurre eromen guzti honi, baina guraso asko daude bakarrik edo murrizketarik ezin eskatu. Nork esan zuen guraso izatea erraza zela?

«Toki berean izanda ere, desberdinak izan ohi dira bertako bizipenak»

**AGURTZANE BELAUNZARAN, UNAI UGARTEMENDIA
ETA RAMON OLASAGASTI**

‘POSTALAK’ IRRATSAIOKO KOLABORATZAILEAK

Iñigo Terradillos Gaztañaga

Urteak dira bidaiek eta horien inguruan sortzen diren gogoetek beren tarteak dutela ATARIA IRRATIA-n. *Pasahitza* magazinean *Bidaia*ren tarteak izeneko atalarekin hasi zen bidaiei inguruko kontakizuna, eta gero, saio izatera pasa zen *Postalak* izenarekin. Bada, datorren astelehenean ekingo dio saioak denboraldi berriari, itxura berrituarekin eta ahots gehiagorekin.

Bidaia eta abenturazale ugari biltzen dituen eskualdea izaki, horietako batzuk elkartu eta beraiei bidaia eta ikusitakoa, bizitakoa edota sentitutakoa kontatu du uhinen bitartez saioak. Gure mugei barruan eginiko gertuko bidaia eta munduko beste puntara eginikoak, bidaia luzeak nahiz motzak... de-

netarikoak izan dira irratiaren entzungai. Baita, lurralde edo txoko jakin batean murgildu gabe, gai bat ardatz izan dutenak. Edota dastamenaren edo usaimenaren bitartez bidaia izateko gonbita egin dutenak. Eta, baita, literaturak edota zinemak leku batetik bestera eramandako saioak ere.

Astelehenean aurrera ere postalak jasotzen jarraituko du irratsaioak, baina, beste era batera. Orain arte, bidaia bakoitzaren kontakizunak osatzen bazuten saioa, aurrerantzean solasaldia izango da. Mahaiaren bueltan izango direnak, berriz, Agurtzane Belaunzaran, Iker Iriarte eta Iosu Iztueta orain arteko bidaia bakoitzaren gain, Fabiola Jubin, Ramon Olasagasti, Unai Ugartemendia eta Ura Iturralde. Kazetariak, ar-

ATARIAN jarrita Goierri
eta Urola Kostako
Hitza egunkarietan doan

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 110€ • Atarikideentzat: 55€
Handia: 160€ • Atarikideentzat: 80€
Eskertza: 60€ • Atarikideentzat: 30€

Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95
Astelehenean asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu.



Belaunzarán, Ugartemendia eta Olasagasti, 'Postalak' saioko kolaboratzaileak. I.T.

gazkilariak, bidaiariak... profil anitzez osatutako tertulia izango da hamabostean behin eta argazki edo irudi batetik abiatuta, leku, gogoeta edota proposamen desberdinak zabalduko dituzte uhinetan.

Hasieratik bidaien kontakizunak egiten aritu den Agurtzane Belaunzaraneke eta *Postalak* irratsaioa denboraldi honetan elkartu diren Ramon Olasagastik eta Unai Ugartemendiak egin dute saioaren atariko.

Zuen kasuan, Ramon eta Unai, bidaiak mendiarekin lotuak izan dira gehiago.

Ramon Olasagasti. Bidaietako batzuk bai. Azken urteetakoak familia girokoak izan dira, eta gehiago surfari lotutakoak. Seme-alabek gure bideari baino beste bati heldu diote, zaharrenaren kasuan surfaren bideari. Beraz, gure azken bidaietan gehiago bilatu dugu surfa mendia baino.

Unai Ugartemendia. Nirea gehiago mendiaren inguruan. Inoiz ez naiz ur zalea izan. Hondartza bai, udan askotan, baina, bidaiak batik bat, mendi inguruan.

Ahots eta profil berri hauek zer emango diote saioari?

Agurtzane Belaunzarán. Ikuspuntu desberdina emango diotela uste dut. Beraien ibilbide profesionalen mendia izan da ardatz, mendizaleak dira. Nik ez daukadan ikuspuntua emango diote, eta nik ere ikasiko dut beraiekin.

Olasagasti. Azkenean bakoitzak bere begiratua dauka. Norberak bizitakotik eta irakurritakotik ekarpenak egiten saiatuko gara, eta ziurrenik elkarren osagarri izango gara.

Orain arte, bidaiatzea afizio ez ezik ofizio ere izan dutenak izan ditugu.

Belaunzarán. Iker eta Iosuk jarraitzen dute horretan, eta nik parentesi bat egin dut. Dena den, niri bidaiak, beste herrialdeek, beste kulturek oraindik ere sugartxo pizten didate. Ofizioa nuen afizio hori bizirik mantentzen saiatzen naiz, nahiz eta une honetan ez bidaiatu fisikoki. Azken bi urteetan ez dugu asko bidaiatu, baina *Postalak* egiten jarraitu dugu, urrutira



joan gabe ere bidaiatzeko modu asko baitaude. Saio batean, esaterako, oroitzapenen, usaimenarekin edo dastamenarekin bidaiatu genuen.

Momentuz, beraz, etenda duzu bidaiatzeko kontua?

Belaunzaran. Orain beste bidaia batean nago, amatsunarenean. Hori ere beste bidaia bat da. Profesi-nalki bidaiena, beraz, geldirik dut. Mutikoa koskor-tzen denean saiatuko naiz berriro ere bidaiatzen.

Nolatan animatu zarete saioan parte hartzera?

Ugartemendia. Iosu Iztuetaren aldetik etorri zait gon-bidapena. Iosuri oso gutxitan esan diot ezetz, eta oraingo honetan ere baiezkua eman nion. Probatzea beti dago ondo. Berak egin duenaren erdia egiten badugu, ez da txarra izango.

Olasagasti. Niri ere Iosuren aldetik iritsi zait. Nik ere ederki ezagutzen dut, eta behin baino gehiagotan bidaiatu dut berarekin. Iosu beti agertzen da prest edozertan laguntzeko, beraz berak horrelako sarea botatzen dizunean ezetz esatea ezinezkoa da. Eta, kasu honetan bezala, gustura egiten duzu.

Lagun berriak ez ezik, itxura berria izango du au-rrerantzean saioak. Banaka aritzen ziren bidaiariak

euren bidaia kontatzen, eta hemendik aurrera hiru-naka elkartuta solasaldi itxura hartuko du.

Belaunzaran. Mahai inguruan jende gehiago egotea-rekin, ikuspuntu desberdinak eta ziurrenik ideia eta irakaspen desberdinak izango ditugu. Azken batean, hori da helburua, guztiok guztiongatik ikastea.

Argazki edo irudi batetik abiatuko dugu solasaldia.

Ugartemendia. Nik beti izan dut curiositate handia ar-gazkilariekin. Lanean argazkilariekin nahiz kamera-lariekin konturatu nintzen beste begi batzuk dituzte-la. Guk edo nik behintzat ikusten ez ditudan gauza asko ikusten dituzte argazkian. Pentsatzen dut ho-rrek ikasketa prozesu luzea eta esperientzia izango duela atzean. Guk, agian, argazkilariekin alderatuta, beste ikuspuntu bat izango dugu, beraz, ea zer es-kaini dezakegun.

Olasagasti. Argazkilariek begi zorrotzagoa dute, eta besteek ikusten ez ditugunak ikus ditzakete momen-tuan. Baina, aldi berean, irudi bakoitzak mila irakur-keta izan ditzake. Batek sumendi bat ikusi dezake, eta besteak sumendi horren azpian bizi diren herri-tarren drama. Alde horretatik, nik uste dut elkar osa-tuko dugula.

POSTALAK

Zer. Bidaiein inguruko saioa.

Non. ATARIA IRRATIAN.

Noiz. Astelehenetan, hamabostean behin, 15:00etan. Lehen saioa urriaren 25ean. Noiznahi entzungai dau-de saioak *Ataria.eus* webgunean irratiko atalean.

Belaunzaran. Postalek bidaiarekin lotura dute, eta ziurrenik argazki bat ikustean norabait bidaiatuko dugu. Kontua da, agian, Ramon, Unai edo ni toki berean izanda ere bizipenak desberdinak izango direla, bai emakumezko edo gizonezko izanda, eta gero norberak duen begiradatik. Solasaldi hauetan ideia asko jarriko ditugu mahai gainean.

Argazkiak egiteko ohiturarik ba al duzue. Zer helbururekin egiten dituzue?

Olasagasti. Ez naiz argazkilari trebea, baina lekukotza jasotzeko irudiak egiten ditugu. Ez dira irudi ikusgarriak izaten. Irudiak edo argazkiak niretzat ipuin modukoak izaten dira. Gogoan dut Josune Bereziartu eskalatzaileari buruz liburu bat osatu genuela, Rikar Otegi eta Josunek berak eginiko argazkiekin eta nire testuekin. Argazki batean Bereziartu agertzen zen eskalatzen eta azpian hainbat pertsona zeuden, eta tartean 10-12 urteko neska bat. Begia non jartzen duzun dago gakoa. Batzuk Josuneren mugimenduetan jarriko dute, eta nire kasuan, neskaengana joan zitzaidan. Horren inguruan, sortzen zaizkizun ideietatik ipuin bat sortu dezakezu.

Ugartemendia. Duela lau hilabete, Asturiasko herri txiki batean Iker Karreraren liburu aurkeztzen ari ginela, ama bat eta bere alaba zeuden. Ama argazki batekin gerturatu zitzaigun. Duela hamar urte lasterketa batean Ikerrekin atera zuen argazkia zen, eta bere

egongelan eduki zuela kontatu zigun, Ikerrek noiz sinatuko zain. 2011ko martxoko lasterketa hark lasterketen mundura lotu zuen, eta gaur egun, 16 urte dituelarik, Asturiasko mendi lasterkarien artean nabarmentzen da. Neska haren begiak ditut gogoan, Iker ikusi zuenean ilusio handia sentitu zuen. Argazki bera errepikatu nahi zuen hamar urte geroago. Oso une polita izan zen.

Olasagasti. Istorioak errepikatu egiten dira. Bereziarturen kasuan ere, oso gazte zelarik Miriam Garcia Pascualen irudiak eta beraren inguruko saioak ikustearen ondorioz zaletu zen. Erreferente moduan hartu zuen Miriam, eta gerora Josune beste hainbaten erreferente izan da.

Belaunzaran. Nire kasuan, aurrekoan disko gogorrean gordeta ditudan ikusten hasi nintzen eta nazkatu egin nintzen. Digitalizazioaren ondorioz, momentu bereko irudi ugari ditugu, irudi asko pilatzen ditugu. Garai batean albumak izaten genituen, eta gaur egun argazki pila bat dauzkagu, baina, aldi berean ez ditugu, disko gogorretan gordeta baitaude. Argazkiak ukitzeak, albumak ikusteak eta une hori familian konpartitzeak bere erromantikotasuna zuen.

Ugartemendia. Garai batean guztia paperera pasatzen zen, eta gehiago kostatzen zen argazkiak egitea. Gaur egun, ordea, mugikorrarekin edo kamerarekin berrogei argazki egiten dituzu eta gero bat aukeratzen duzu.

Olasagasti. Ibarran, haurrak Haur Hezkuntzan hasten zirenean, gurasoengandik pixka bat banatu behar zuten, une hori leuntzeko gurasoei album bat egitea eskatzen ziguten. Guk hiru seme-alabekin 40 orrialdeko album bat osatu genuen argazki eta testuekin. Album hori gaur egun ere oraindik hartzen dute. Ordenagailuko irudietara ez dute hainbeste jotzen, baina, album horretara bai. Beraien biografia motza ikusten dute hor islatuta, eta beraientzako nahiz guretzako balio berezia hartzen du.

IRAGARKI LABURRAK

NEGOZIO ESKU-ALDAKETA. Neska edo mutil, andre edo gizon, denda polit bat nahi duenak ez galdu ez hitz

egitearren. Deitu ondorengo telefono zenbakira: 639 187 809.

Spanakopita greziar pastela



**AINTZANE
ARTOLA**



Gaurkoan Greziara bidaiatuko dugu. Bertako erre-zeta asko bezala begetarianoa da honakoa. Kristau ortodoxoek urtearen heren batean ez dute haragirik jaten eta horregatik daude horrenbeste errezeta begetariano Grezian.

Gaurko osagai nagusiak ziazerbak eta feta gazta dira. Feta gazta, greziar gazta da, ardi esneaz egina, jatorri izendapena baduena. Nik adibidez afaltzeko osatu izaten dut honako

errezeta baina Grezian, irakurri dudanez, sarrera gisa jaten dute, edota gosaltzeko edo hamaiketako egiteko.

Errezetari hasiera emateko, baratxuria eta tipula zuritu eta xehe-xehe moztuko ditugu. Oliba olio zorrotada batekin zartagin batean su-eztituko ditugu, tipula goxo-goxo gelditu arte. Jarraian, ziazerbak garbituko ditugu, eta oso handiak izanez gero erditik zatituko ditugu. Eta gainontzeko barazkiekin batera, zartaginean botako ditugu. Ziazerben bolumena txikitu arte izango ditugu sutan, pare bat minutuz edo.

Bitartean, bol batean arrautza bat irabiatuko dugu eta feta gazta apurtuko dugu, eskuekin zati txikiak osatuko ditugu. Eta arrautza eta feta gazta ondo nahastuko ditugu. Bestetik, pasak ur baso batean sartu eta mikrouhin labean sartuko ditugu, minutu batez. Honela lortuko dugu pasak berriro hidratatzea. Jarraian, pasak eta ziazerbak bolean dugun nahasketara gehituko ditugu, iragazki batetik pasa ondoren, ahalik eta lehorren egon daitezen. Gazta eta pipermina gustuko izanez gero, orain gehituko genituzke.

Jarraian, labea piztuko dugu 200 gradutan, eskulanetan jarri bitartean. Mahaia gainean filo orri bat zabalduko dugu, olio pittin bat igurtziko diogu gainera eta beste orri bat gehituko diogu gainean. Lan egiteko orduan binaka erabiliko ditugu orriak. Gainera bolean dugun nahasketa botako dugu, orriaren izkina batean. Txorizo moduko bat egingo dugu, orri biribiltzen joango gara. Lauzpabost zilindro osatuko ditugu. Labe-rako ontzi borobil batean kokatuko ditugu gure zilindroak ensaimada baten itxura emanez. Sobera dugun arrautza irabiatu eta pintzel batekin gainera margotuko dugu gure pastela. Gainera sesamo haziak bota daitezke. 20-25 minutuz labean izango dugu, gainaldea gorritu arte.

OSAGAIK

- Ziazerbak (kilo erdia).
- Feta gazta.
- Filo oreadun 10 orri.
- 2 arrautza.
- Tipula erdia.
- Baratxuria.
- Pasa eskukada.
- Sesamo haziak.
- Oliba olio.

Agregatzaile finantzarioa

Aplikazioaren jakinarazpenak

LK Pay

Txata

Online hipoteka

Meet

Bideokonferentzia gestorearekin

— Yolanda Munin Freire
Bulego-gestorea, Zornotza

Erreminta digital guztiak ditugu zuretzat.

ZOZKETA BEREZIA

Zozketan parte hartzeko epea 2021eko
urriaren 14tik 24ra, **943 655 695 telefonoan**
edo **ataria.eus-en**.



GoPro Hero 9 Black-aren ezaugarriak:

5K-ko bideoa eta 20 MP-eko argazkiak, egonkortze
aurreratua, urperagarria (10 metroraino), bateriak
% 30 gehiagoko iraupena, lente ateragarria, ...


LABORAL
kutxa

Bada beste modu bat



ISASTEGI

~ SAGARDOTEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA~TOLOSA (GIPUZKOA)
TEL: 943 65 29 64 ISASTEGI.COM





PLATAFORMEN ERAGINA ZINEMAGINTZAN

Hodei Arrastoa

Dagoeneko ezagunak egiten zaizkigu Netflix, Amazon Prime, Disney Plus, HBO, Filmin, Movistar + eta Apple TV bezalako izenak. Bakoitzaren berezitasunak alde batera utzita, amankomunean dutena zera da, ikus-entzunezko eskaintza zabala ahalbidetzen dutela diru-truke.

Alice Guy emakume frantziarrak zinema sortu zuenetik (bai, ezin zaie Lumiere anaiei meritu guztia oparitu) ehun eta hogeita bost urte soilik pasatu dira eta urte hauetan guztietan zinemagintzak arrakasta handia izan duela argi dago, eragin handia du gizartean eta sariak banatu ohi dira urtero jaialdi ezberdinetan industriaren parte diren langileen lana goraipatzeko.

Plataformen agerpenak, ordea, kalterik egin ote dio zinemagintzari? Ala aldiz, aldeko efektua izan du aurrez aipatutako izen horien guztien eskaintzak?

Gaiaren inguruan hitz egiteko bost gonbidatu ekarri ditugu **TOLOSALDEKO ATARIARA**: Maider Oleaga eta Iñigo Sbeltza zinema zuzendariak, Elisabet Casanovas aktorea, Sandra Cerio makillatzaile eta ile-apaintzailea eta Alain Rekondo zinemazalea.

Ea ikuspuntu ezberdinetatik jasotako iritzi hauek guztiek plataformek zinemagintzan duten eragina ulertzen laguntzen diguten.



IÑIGO SBELTZA

ZUMARRAGA, 1983.

Txikitatik argi izan zuen zinema zuzendari bilakatuko zela, baina 28 urterekin ausartu zen zinema-ikaske-tak egitera Madrilera joatea. Makina bat bideoklip zuzendu ditu musika talde ezberdinentzat, tartean Hesian eta Txapelpunk, eta errealizadore gisa ere aritu da lanean telebistan. Gaur, ETBko *Chiloe* programa grabatzen dabilela harrapatu dugu.

Nola lortzen dituzu baliabide ekonomikoak zure lanak ekoizteko?

Bideoklipen kasuan, enkargu bat denez, nik ez dut dirurik jartzen. Film laburrei dagokienez, mesedeak eskatuz... nazkatzen zaren arte. Jendeari ondo ordaindu nahi diot bere lanagatik, baina zaila da. Zure lanen bat jaialdietara bidali nahi baduzu langileak kontratatatuak izatea exijitzen dizute.

Diru laguntzarik sekula eskatu duzu?

Momentuz ez, baina egingo dut. Oraingoz, ekoizte-txe bati saldu nahi diodan film labur bat dut eskuar-tean.

Plataforma batek zure lanen bat ekoiztiko balu, ka-litate artistikoa handitzearen sinonimoa litzateke?

Ez du zertan. Bada esaldi bat zera dioena: «Mundu guztiak ezagutzeak ospea ematen dizu, inporta du-tenek ezagutzeak prestigioa». Adibidez, Netflixek eskaintzen dituen produktu asko oso *mainstream* dira eta zeure buruari galdetzen diozu nola iritsi den fikzio hori plataforma horretara. Hori bai, bertan lana egiteko aukera banu zalantzarik gabe egingo nuke.

Beraz, plataforma baten presentziak bultzada emango lioke zure lanari.

Noski, nazioarteko mailan kokatzen zaitu. Badut la-gun bat Filmin plataforman hiru film dituen, baina estilo oso independentea dute eta ez dakit bertatik bizitzeko nahikoa diru bereganatzen duen.

Plataformen agerpenak nolako eragina izan du zi-nemagintzan?

Zinema prostituitu egin dela iruditzen zait. Produktu *mainstream*ak egiten dira gehienbat, saltzeko pen-tsatuta daudenak eta lan asko egin nahi baduzu ho-rrelako zerbait egin beharra daukazu. Zinema inde-pendenteak badu bere bidea, baina laburragoa dela iruditzen zait.

Non ikus ditzakegu zure lanak?

Vimeo plataforman dauzkat lan gehienak.

«Grabatzen den eszena bakoitzean *raccorda* mantentzen ibiltzen naiz»

SANDRA CERIO

DONOSTIA, 1994.

Makillatzailea eta ile-apaintzailea da Sandra Cerio. Telebistako hainbat saiotan aritu da lanean: *Qué me estás contando*, *El Conquis*, *Gure kasa*, *Biba zuek...* Fikzioari dagokionez, EITBko *Ihesaldia*, *Altsasu* eta *Go!azen* telesailetan egin du lan eta Amazon Prime plataformaren *El internado* telesailean ere. Zineman, une honetan aretoetan ikusgai dagoen *Maixabel* filmean errefortzu gisa hartu du parte.

Zertan datza zure lana?

Nik makillatu eta orraztu egiten dut eta ondorioz grabatzen den eszena bakoitzean *raccorda* mantentzen ibiltzen naiz buru-belarri. Nire lana ez da aktoreak txukun jarri eta etxera alde egitea, baizik eta grabaketan presente egon behar dut une oro dena bere tokian egon dadin. Aurrez lan handia dago pertsonaia bakoitzak izango duen orrazkera eta makillajea prestatzeko, diseinu bat egin behar duzu pertsonaia agertzen den eszena bakoitzeko, haren egoera emozionala ere kontutan hartuz. Behin grabaketan nagoela, esan dudana bezala, *raccorda* mantentzen ibiltzen naiz: eszena berbera behin baino gehiagotan grabatzen da eta nire lana ile eta makillaje guztia hasieran zegoen bezala uztea da muntaketa egiten denean arazorik egon ez dadin. Adibidez, pertsonaia batek korri egiten badu sekuentzia batean eta izarditan

hasten bada, nire lana grabaketari berriro ekin aurretik pertsonaia korri egiten hasi baino lehen zuen itxura berreskuratzea da.

Desberdintasunik nabari al duzu telebistan, plataformetan, zineman... lana egiterako orduan?

Bai, batez ere diru kantitatea aldatzen da. Nire lanari dagokionez, telebistarako lanean aritu naizenean oso makillaje potenteak egin ohi ditugu, bertako argiztapenak asko xurgatzen duelako. Telesail bat edota zinema grabatzerakoan zerbait naturalagoa bilatu ohi da.

Plataforma batentzat lan egiteak zertan aldatzen du zure jarduna?

Jende kantitatea aipatuko nuke; departamentu bakoitzean jende asko dago. *El internado* telesailean makillajea eta orrazkera bereziak egiten ziren, makillajeaz arduratzen ginen lau pertsona geunden eta orrazkeraz arduratzen ziren beste lau langile zeuden. Ez ginen besteen lanaz arduratzen. Metodologia horrek emaitza hobeak ematen dizkizu, norberaren lana espezifikagoa da eta errazagoa da akats gutxiago egitea.

Plataforma gehiagorekin lan egin nahi duzu?

Fikzioa den guztiak erakartzen nau. Telebistako programek ez naute horrenbeste erakartzen egiten den makillaje motagatik: zauririk edota halakorik ez duzu sekula egiten. Netflix eta HBO bezalako plataformentzat lan egitea gustatuko litzaidake, baina



ekoizpen txikiak ez ditut alde batera utzi nahi lankideekin sortzen duzun loturagatik. Familia txikiak sortzen ditugu.

Soldata jasotzerako orduan ere nabari al da ezberdintasunik?

Bai, nabari da. Urtean behin plataformaren batentzat lan egitea ez legoke gaizki. [Barreak].

Ekoizpen handientzat lana egiteak zure sormen propioa mugatzen du?

Pertsonaiak zehatzak dira eta gidoian ongi definituta daude. Hala ere, gidoi-irakurketak egiten direnean gauzak konkretatzen joaten dira eta tarteka egin beharreko hori zure gustura egin dezakezu. Esaterako, pertsonaia batek zauri bat egiten badu aurpegian, zauri hori nola egin

nik erabaki dezaket. Beste batzuetan makillaje-buruaren esanak jarraitu behar izaten ditut. Niri, ordea, lantalde guztiarekin askatasunez hitz egitea eta guztion iritzietatik ideia onena aukeratzea gustatzen zait.

«Ekoizpen handiko produktuetan denbora gehiago dago sekuentzia bakoitza grabatzeko eta, beraz, akats gutxiago izan ohi dira»

Ikusle gisa, plataformek kalitate hobea al dute makillajeari dago-kionez?

Orokorrean akats berdinak egiten dira toki guztietan. Adi egon behar da lanean *raccorda* mantentzeko. Ekoizpen handiko produktuetan denbora gehiago dago sekuentzia bakoitza grabatzeko eta, beraz, akats gutxiago izan ohi dira. Ekoizpen txikietan denbora gutxi izan ohi da eta denboraz gaizki zabiltzanean dena okerrago ateratzen da.

«Herrialdeetako istorioak gerturatzea da plataformen onena»

ELISABET CASANOVAS

SABADELL

(HERRIALDE KATALANAK), 1994.

Aktore katalana, *Merli* telesailaren arrakastari esker egin zen ezagun eta gaur egun hainbat lan egin ditu Espainia mailan. Euskal Herritik kanpo jaio eta lan egiten duen pertsona baten ikuspuntua eskaini du Casanovasek elkarrizketa hauen artean.

Zein da desberdintasunik nagusiena plataforma baten ekoizpena den eta ez den bi produktu horien artean?

Plataforma batek ematen dizun ikusgarritasuna ez dizu, agian, telebista batek ematen. *Merli* telesailaren kasuan, ekoizpena TV3 telebista katearena izan zen, eta gerora Netflixek erosi zuen. Noski, hori gertatu zenean jende gehiagorengana iritsi zen. Nire aktore lanari dagokionez, plataforma baten ekoizpen batean lan egiteak ala ez egiteak ez du eraldatzen nire lana. Azaldu beharreko istorioa gailendu behar da.

Beraz, zure lan pertsonala ez da aldatzen ekoizpenaren tamainaren arabera.

Hori da. Lana modu berean egiten duzu. Esan bezala, istorioa ondo azaldu behar da. Ez dut uste diferentzia artistikorik dagoenik. Beste herrialdeetako istorioak gerturatzea da plataformek duten onena. Munduarekiko duzun ikuspuntua zabaltzen laguntzen dizu horrek, toki bakoitzean zehazki gertatzen diren istorioak azaltzen dizkizu.

Eta lantaldea aldatzen al da?

Ezta ere. Taldeak berdin egiten du lan istorioa ahalik eta ondoen azaltzeko. Noski, plataforma baten kasuan lantaldea handiagoa da, diru gehiago egon ohi delako tartean. Dirua denbora da ikus-entzunezko lanetan. Hala ere, nire esperientzia pertsonalean oinarrituz, profesionaltasuna toki guztietan berdina da.

Esan duzun bezala, Netflixek ikusgarritasun handia eman dizu. Nola bizi duzu zuk egindakoa ahots ezberdin batekin beste hizkuntza batean ikustea?

Ez ditut nire lanak beste hizkuntzetan gehiegitan ikusi... Errespetu handia diot bikoizketari eta horretan lanean dabiltzan profesionaletan konfiantza daukat. Pertsonalki, nahiago izan ohi dut fikzioa ja-





torrizko bertsioan kontsumitu, bidaiatzeko aukera handiagoa ematen didala iruditzen baitzait. Fikzioak bikoiztuta ikustera ohitu gara eta kasu batzuetan oso gertu geratzen zaizkigun hizkuntzak ordezkatzen dira. Horren arrazoia zein den galdetzen diot neure buruari eta bai telesailak, eta baita filmak ere jatorrizko bertsioan kontsumitzearen aldeko apustua errebindikatzen dut, aberastasun handiagoa eskaintzen baitizute.

Bada gertu geratzen zaigun kasu bat: 'Altsasu', euskal produkzioa, TV3en bota zuten katalanez.

Gure hizkuntzak zaindu behar ditu-

«Plataforma baten kasuan lantaldea handiagoa da, diru gehiago egon ohi delako tartean. Ikus-entzunezkoetan dirua denbora da»

gula iruditzen zait. Hizkuntzak pentsamendua artikulatzen du, eta ondorioz, fikzioa jatorrizko bertsioan ikustea aukera ona dela uste dut. Ulertzen dut TV3ek hizkuntzaren defentsaren alde hartzen dituela erabaki horiek, baina gauza batek ez du bestea kentzen.

Zinemara joateko ohitura mantentzen duzu?

Plataformak erabiltzea oso ondo iruditzen zait, baina jendeari zinemara eta antzokira joaten jarraitzeko eskatuko nioke. Kultura modu ezberdinetan kontsumitu daiteke, noski, baina espresuki emanaldi bat ikustera joatea gizakiok aspalditik egiten dugun erritual bat da eta mantendu beharko litzatekeela uste dut. Gaur egun dena doa azkar eta egoera horren aurrean oso ederra da zuk nahi duzunean etxean plataforma bateko produktu bat kontsumitzea eta aldi berean sekulakoa iruditzen zait mugikorra itzali eta bi orduko antzezlan bat

ikustea, zuzenean.

Non ikus zaitzakegu?

Zineman estreinatu berri diren *Chavalas* eta *Las leyes de la frontera* filmetan. Netflix plataforman *Merli* telesailan eta *Fuimos canciones* filmean. Azkenik, *Drama* izeneko telesail motza PlayZ kanal digitalean dago eskuragarri. Aurrerago, Filmin plataformak lehen aldiz ekotzitako *Doctor Portuondo* telesailan ere agertuko naiz.



MAIDER OLEAGA

BILBO, 1976.

Zinema zuzendaria da Maider Oleaga. Makina bat dokumental filmatu ditu bere ibilbidean zehar, gurean zein nazioartean. Aurten *Kuartk Valley* film luzea aurkeztu du Donostiako Zinemaldian eta jaialdi horretan bertan Euskal Gidoi Onenaren saria irabazi berri du gainera.

Zein prozesu izan ohi dute zure sorkuntzek?

Proiektu bakoitzak prozesu desberdina dauka eta hori errespetatzen saiatzen naiz ahal den heinean. Proiektuaren ideia modu ezberdinetatik etor dakidake: istorio batetik, esaterako *Kuartk Valley*; bizi-esperientzia batetik, adibidez, *Muga deitzen da pausoa* Elvira Zipitriaren etxean bizitzen hasi nintzelako otu zitzaidan... Baina batez ere irudiak eta soinuak izaten ditut sorkuntzaren hasieran. Esaterako, fikziozko zerbait azaldu nahi badut gidoia idazten hasten naiz eta jarraian bestelako lanak datoz: finantzaketa bilatzea, lokalizazioak aurkitzea... Horrez gain, norbaitek zerbait konkretuari buruz idazteko eskaera egin diezadake eta sorkuntza abiapuntu horretatik jaiotzen da. Hau da, proiektu bakoitza oso desberdina da bere izaera propioa duelako eta ezinezkoa zait nire sorkuntzen prozesua orokortzea.

Zeintzuk izan ohi dira lanean topatzen dituzun oztopoak?

Oztopo *praktiko* gisa diruaren bilketa esango nuke.

Proiektuak beti modu duin batean atera nahi izaten ditugu aurrera, langileak ordainduz eta lan egoera onak eskainiz, eta noski, horrek dirua eskatzen du. Diru-iturri desberdinetara jo behar duzu eta oso lan neketsua da. Sorkuntzaren barruan ez nuke esango oztoporik dagoenik, baina badira edozein prozesutan izaten diren mugak eta arazoak, prozesuaren beraren barnean daudenak. Muga horiek onerako izaten dira askotan, proiektua finkatzen laguntzen baitizute. Gidoi bat idazterakoan aldaketak egin behar izaten dira zuk nahi duzun hori grabatzea ezinezkoa delako, lokalizazioa dela-eta adibidez, eta horrek aukera berri batzuk irekitzen dizkizu. Horrelakoa da sorkuntza eta horrela egiten da filma azken finean, mugak eta muga horiek irekitzen dituzten ateak kontutan izanda.

Zein litzateke aldaketa nabarmenena zure proiektua plataforma batek ekoitziko balu?

Ez dut plataforma batentzat zuzenean sekula lan egin, beraz, ez dut esperientziarik horretan. Nire kasuan, nire taldekideekin egin ditudan proiektuak pertsonalak dira. Esaterako, Galapan eta Sumendi Films ekoizte-txeeekin bi film labur egin ditut eta erabakiak elkarrekin hartzen genituen, askatasun osoz. Gure mugak kontutan hartu genituen, baina askatasunak beste guztia gailentzen zuen eta proiektuak beti helburu-zentroan ipini genituen. Plataforma batentzat lan egingo banu, beste enkarguetan egiten dudana bezala, iritzi gehiago hartu beharko nituzke kontuan, baina, agian, horrek ere, lehen esan dudana bezala, eskuartean dudana pelikula edota dokumentalari irtenbide berriak ekarriko litzioke. Ez dakit plataforma baten ekoizpenak benetako aldaketarik eragingo ote lukeen, beti daukagun guztia eskaintzen diogu proiektuari... Agian orain dudana askatasun hori pixka bat galduko nuke, baina egia da helburu amankomuna izango genukeela guztiok: istorio hori ahalik eta ondoen aurrera ateratzea. Istorioa modu batera edo bestera azaltzearen inguruko eztabaidak bidearen parte dira. Proiektu bakoitzak izaera bat dauka. Izaera hori ulertu beharra dago eta egokitu egin behar gara. Proiektu bat plataforma batetik badator, jada izaeraren parte izango du hori eta, esan bezala, egokitu egin beharko ginateke.

Zure lanen bat plataformaren batean ikus dezakegu?

Bai, *Muga deitzen da pausoa* Filmin plataforman dago.



ALAIN REKONDO

TOLOSA, 1983.

Aseguru enpresa bateko langilea eta saskibaloari entrenatzailea da Alain Rekondo. Zinemari buruz hitz egiten kolaboratzaile gisa aritzen da ATARIA irratiari. Alaiak zinema afizio gisa jarraitzen du, film zein telesail mordoa ikusten ditu eta ikusle edota kontsumitzaile gisa plataformekiko duen bere iritzia konpartitu du ATARIArekin.

Nolakoa da zinemarekin duzun erlazioa?

Txikitatik gustatu izan zait. Ama kultura-zalea da betidanik eta musika asko entzun izan dugu etxean, nahiz eta familiako inor ez izan artista. Donostiako Zinemaldira maiz joaten zen lagun bat zuen, eta haren alabak zinema munduko ikasketak egiten zituen, haiekin hasi nintzen jaialdira joaten. Egunean lau film ikusten genituen bederatzi egunez. Zinemaldiak eragin handia izan du nigan. Orain ez daukat horrenbeste denbora, baina ahal badut egunero joaten saiatzen naiz, gutxienez film bat ikustera.

Zein plataforma kontsumitzen duzu?

HBO, Netflix eta Amazon. Filmin hilabete solte batzuetan ere eduki izan dut. Eskaintza handia dago eta plataforma guztiak jarraitzea ezinezkoa da.

Zerk bultzatu zaitu plataforma horiek aukeratzera?

Katalogoari begiratzen diozu?

Orokorrean HBO aukeratzen dut kalitate handieneko edukia izan ohi duelako. Egia da, aldi berean, aukera gutxiena eskaintzen duen plataforma dela. Historikoki telesailen kalitateetan aurrerapauso bat eman zuen eta prestigio handia hartu zuen. Netflix eta Amazonek katalogo handiagoa dute, baina nire ustez orokorrean kalitate eskasagoa izan ohi dute bertako telesailak, nahiz eta arrakasta handia izan dezaiketen. Plataforma bakoitzaren barruan dagoen edukia aukeratzeko orduan, gustuko ditudan pare bat kritikoren aholkuak jarraitzen ditut edota gogoko ditudan zuzendari eta gidoilarien ibilbidea jarraitzen saiatzen naiz.

Zinemara joateko ohitura mantentzen duzu?

Bai, zinema ezin dut utzi, esperientzia gisa asko gustatzen zait. Oso desberdinak dira bi gauzak. Etxera nekatuta iristean plataformetako kalitatezko telesail bat ipintzea gustatzen zait, baina zinemaren esperientzia berezia da niretzat. Lehen aipatu bezala, Zinemaldira joatea sekulakoa da. Donostian ere egiten da Fantasiatzko eta Beldurrezko Filmen Astea eta anaiarekin batera joaten naiz urtero. Leidorrera joatea gustuko dut, ostegunetan zine foruma egiten da eta nahiz eta orain gutxiago bertaratzen naizen, plataforma horien kontsumitzaile izateak ez nau urruntzen aretoetatik. Batek ez du bestea kentzen.

Zinemetako sarrera garestia dela deritzozu?

Baietzaren eta ezetzaren artean aukeratu beharko banu, ezetz esango nuke. Frantziar, Erresuma Batuan... askoz garestiagoak dira sarrerak. Hala ere, oso ondo iruditzen zait zinemagintza gaur egungo egoerara moldatzea eta ekintza ezberdinak bultzatzea sarrerak merkatzeko: hilabeterako bonuak, *Zinemaren Festa* delakoa, asteazkenetan ikuslearen eguna...



ANE AMUNDARAIN
BIOMEDIKUNTZAN
DOKTOREGAIA

Zientziak gaztetu gaitzake?

Agian Isabel Preysler-ek betiko gazte mantentzearen sekretua ezagutuko du, baina gainontzeko pertsonak jaio, hazi, zahartu eta hil egiten gara. Bizitzaren zikloa da, baina zeinen gogor borrokatzen dugun denboraren iragatearen aurka! XXI. mendean mota guztietako krema, dieta, kirol, ebakuntza kirurgiko,... dauzkagu benetan dugun adina ahalik eta ondoen disimulatzen saiatzeko. Baina, zer pentsatuko zenukete zientziari esker adina disimulatzetik benetan gaztetzera pasa gaitzkeela esango banizue?

Bada, hauxe da Silicon Valley-eko zenbait *guru-ren* apustu berria, tartean Amazon-eko Jeff Bezos egonik, pertsonak gaztetzera helburu duen Altos Labs enpresa sortu baitute. Eta horretarako, arloko zientzialari onenak fitxatu dituzte, Champions-eko futbol talde bat izango bailiran. Izan ere, en-

presa honen helburua zahartzea «bizitzaren legea» izatetik gaixotasun modura ikustera pasatzea da. Izan ere, zahartzea gaixotasuna bada, manipulatu eta tratatu daiteke. Honela, Altos Labs-ek zahartzearen alorra guztiz iraultzea espero du, lehen aldiz zahartzaroaren aurkako terapia eraginkorrak garatu eta komertzializatu nahi baitituzte. Pentsa nolako negozioa izan daitekeen...

Altos Labs-ek zahartzearen alorra guztiz iraultzea espero du, lehen aldiz zahartzaroaren aurkako terapia eraginkorrak garatu eta komertzializatu nahi baitituzte

Funtsean, laborategian gaztetzearen ideia honen oinarrian birprogramazio zelularra dago. Birprogramazio zelularra laborategiko baldintzetan zelulak gaztetzeko estrategia bat da, baina Altos Labs-en arabera, estrategia honek animalion gorputz osoak gaztetzeko balio dezake, honela giza bizitza luzatzeko aukera eskainiz. Birprogramazio zelularrari esker, zelula heldu espezializatuak egoera primitibo batera itzuli daitezke, berriro

ama-zelula enbrionarioen ezaugarriak berreskuratuz. Zelula testu hau balitz, orain arteko hitz guztiak ezabatu eta berriro orri zuriaren aurrean jartzea bezala izango litzateke. Shinya Yamanaka zientzialariak 2012. urtean Nobel saria jaso zuen biprogramaziorako teknika lehen aldiz deskribatzeagatik (bide batez, Altos Labs-ek Yamanaka ere fitxatu duela uste da), horretarako «Yamanakaren faktore» deituriko lau geneak erabiliz. Izan ere, lau gene hauek zelula heldu batean sartzea nahikoa da ama-zelula egoerara itzultzeko. Pentsa, modu honetara, laborategian 80 urteko pertsona baten zelula bat hartu eta bere adina 40raino murriztu daiteke!

Biprogramazioaren potentziala ikaragarria bada ere, teknologia honek oraindik bide luzea du egiteko gizakiok gaztetzea lortu aurretik. Hasteko, ez baita oraindik guztiz ulertu Yamanakaren faktoreek nola funtzionatzen duten. Faktore hauetako batzuk minbiziaren eragile modura ere ezagunak dira

(onkogene delakoak), eta saguetan aplikatu ondoren, zelulak gaztetzeaz gain teratoma izeneko tumore enbrionarioak eragiten dituztela ere ikusi da. Beraz, gakoa faktore hauen erabilera egokian egon daiteke: nahikoa zelulak gaztetzeko, baina ez tumoreak eragiteko adina. Era berean, zelula helduak ama-zelula egoerara itzultzeak zelula horiek gaztetzeaz gain, beren identitatea galtzea ere badakar. Hau da, neurona bat ama-zelula egoerara arte gaztetu genezake, baina jada ez da neurona bat izango. Beraz, nola lortu gazteagoa izan eta aldi berean neurona izaten jarraitzea?

Zalantzarik gabe, zahartzaroaren aurkako terapietan dagoen interesa ikaragarria da (bestela galdetu zimurak ezabatzeko botox-a injektatzen direnei), baina oraindik birprogramazio zelularrak bide luzea du egiteko terapia erreal bihurtu arte. Eta behin lortuta, hasieran behintzat ez dirudi Gizarte Segurantzak estaliko duen tratamendua izango denik...





Julen Iztueta
**DENBORA ISILTASUNAREN
ERRITMOAREN ZAIN**



**ONINTZA LASA
ARTEAGA
TOLOSARRA**

Argi ibili!

Askotan, albisteen berri izaten dudanean ez dakit barre edo negar egin. Buruak alde batera egiten du baina barruak beste emozio bat sortarazten dit. Negarra tristurak sortarazten badit ez dago arazorik. Naturala eta ulergarria da. Arazoa, negargura inpotentzi eta amorruek sortarazten didanean izaten da. Nahastua nagoelako; ezin ulertuta; ilunpetan.

Eta azkenaldian askotan gertatzen zaizkit honelakoak. Esaterako, gai baten inguruan gogoeta egin behar nuela eta askotariko gauzak irakurri behar

Baina aurrera egin behar dugu eta ondorioz, guk zer egin dezakegun galdetu behar diogu geure buruari. Alegia, errealitateko egia batzuk hauek dira eta ez zaigu gehiegi gustatzen, beraz, zer geratzen zaigu? Adibidez, gutasuna zaintzea, gure artean zaintzea. Komunitatea sendotzea. Oraingoz niretzat balekoa den aukera da. Ez nahastu arren honelako jarrerak amore ematearekin, ez pentsa egoerarekiko kritika ez egiteari buruz ari naizenik. Aitzitik, inoiz baino ozenago salatu behar ditugu gutxi batzuk ondo hausnartuta hartzen dituzten erabakiek sortarazten dituzten egoera tamalgarri orokortuak. Ahal den neurrian, honelakoak ekiditen edota gutxitzen saiatu behar dugu. Baina bi jarrerak erabat bateraga-

Talde kohesioa babes dezagun. Jakina da, gizakiok elkar behar dugula eta hor dagoela gure indarra eta bizi itxaropena.

izan ditut eta ezaguna zen errealitate bat berriro ere lehertu zait aurpegian, datu eta ikerketa zientifikoek baliozkotua. Gizarteko talde desberdintasunak handituz doa eta ez du aldatzeko itxura handiegirik. Hor diagnostikoa konponbiderako argi zehatz gehiegirik gabe baina ondorio latzekin.

Bitartean, hemen dihardugu guk gure egunerokotasunean, itzalen ikuskizun baten gisan. Alde batetik, gutxi batzuk erabiltzen dituzte panpina eta bestelako tresneriak eta bestetik, itzalei begira nola edo hala istorioa interpretatu nahian saiakerak egiten ari gara besteok. Ñabardura oro galdurik.

rri direla esango nuke.

Eta nola egin hori? Argi ibiliz. Amona zenak argi ibiltzearen garrantziaz ohartarazten gintuen ilobak. Gorriak ikusitakoa zen hura eta nik errespetuz eta kontutan hartzen dut gomendioa.

Argi ibili ziririk sar ez diezaguten, argi ibili iluntasunean gal ez gaitezen edota galbidera eraman ez gaitzaten eta indar guztiak metatu gure artean zain gaitzen. Talde kohesioa babes dezagun. Jakina da, gizakiok elkar behar dugula eta hor dagoela gure indarra eta bizi itxaropena. Guztiok guztiokin. Inor argi gunetik kanporatu gabe.



ZUZENEKOA

Pilota

Astelehena

17:00etan Tolosako Beoti-bar pilotalekutik Altuna III eta Bengoetxea VI.aren arteko partida.



SAIO LIBREA

Musikasi

Ostegunean

20:00etan Karmen Sanzen saioa, musika klasikoaren ingurukoa.



PODCAST-A

Desafioa

Herri kirolak

Joxe Anjel Sarasola astea-suarrarekin herri kirol munduko albisteen errepasoa, asteazkenean.



MAGAZINA

Pasahitza

Astelehenetik ostiralera

09:00etatik 13:00etara eskualdeko aktualitateari buruzko saioa ATARIA IRRATIAN: protagonistak, zuzenekoak, kantu eskaintzak...



Saio guztiak hemen,
ataria.eus/irratia-n-entzungai

OSTIRALA

PASAHITZA

09:00. Eguraldiaren iragarpena Iker Ibarluzearen eskutik, eskualdeko berriak, eguneko elkarrizketa, helduen solasaldia...

PODCAST-A

15:00. *Kulturari Begira* Irati Saizarren eskutik. Eskualdeko asteburuko agenda.

ZEBRABIDEA

16:00. Arrosa sareko magazina.

MESTIBULL

21:00. Antxeta Irratiko DJ Bull-en musikari buruzko irratsaioa.

LARUNBATA

TRIKITIA

08:00. Trikiti musika goizean zehar.

BASERRITIK

15:00. Baserri munduari buruzko saioa.

UZTURRE BLUES

21:00. Blues musika, Iñigo Martinekin.

IGANDEA

TRIKITIA

08:00. Trikiti musika.

HARI NAIZELA

15:00. Bertsolaritzari buruzko saioa, Imanol Artola *felixekin*.

AMALURRA

16:00. Naturari buruzko saioa.

ENTZUTEKO JAIKAK

22:00. Musika saioa.

ASTELEHENA

PASAHITZA

09:00-13:00. Eguraldia, agenda, zuzeneko konexioak, kantu eskaintzak, iritziaren tarteak, eguneko gaiak eta asteburuko albisteak.

POSTALAK

15:00. Bidaiei buruzko saioa.

ZEBRABIDEA

16:00-18:00. Arrosa sarearen magazina. Euskal Herriko aktualitateak.

AGENDA

OSTIRALA URRIAK 22

ALEGIA

UDAZKENEKO KULTUR EGITARAU

22:00. Duplaren kontzertua, plazan.

TOLOSA

JABETZE ESKOLA

16:00. *Autodefentsa feminista jaietan eta gure bizitzetan.* Maitena Monroy Romero prestatzailerekin. Gaztelaniaz. Matrikulak bost euroko kostua izango du. Kultur etxean.



ERAKUSKETAK

‘Ondar, harri ta zerua’. Oskar Tena Gonzalez artistaren erakusketa.

3 tabernan, urriaren 24a arte.

‘Tolosan, koronabirusaren hilabeteetan’. 2021eko udaberrian kultur etxeko argazki tailerlean egindako lanen erakusketa. Ana Pradini, Ane Uriarte, Carmen Tapia, Feli Izagirre, Fernando Pradini, Francisco Garcia, Haizea Docherty, Ziggy Docherty, Idoia Sanchez, Jexux Arin, Jon Mintegiaga, Juanan Dorronsoro, Maddi Labayen eta Pablo Artetxe. Tailerraren arduraduna Iñigo Royo izan da. Aranburu jauregian, urriaren 30a arte.

‘Galtzaundi aldizkariak 30 urte’. Urriaren 23a bitarte, Aranburu jauregian.



KONTZERTUAK

20:30. Mucedades eta Los Panchos taldeen kontzertua. Tolosako kultura bonutik kanpoko ikuskizuna da. Leidor antzokian.

22:00. Rudiger Band taldearen kontzertua Bonberenean izango da. Sarrerak zortzi euroko kostua izango du.

LARUNBATA URRIAK 23

ALKIZA

ONDAREAREN EUROPAKO

JARDUNALDIAK

10:00. Baserri paisaia ezagutu eta ulertzeko bisita gidatua egingo dute. Entzumen arazoak dituzten pertsonentzat egokituta egongo da eta horretarako zeinu hizkuntzako interprete zerbitzua eskuragarri egongo da bisitarien-tzat.

AMASA-VILLABONA

MENDI DUATLOIA

12:30. Umeen duatloia izango da (13 urte artekoentzat).

16:00. Amasako 28. Mendiduatloia, Euskal Herriko mendi duatoli zirkuituko proba. Parte hartzaileek 4 km korrika, 16 km bizikletaz eta beste 2 km korrika egingo dituzte Amasamendiko parajeetan. Izena emateko: Kirolprobak.com.

BERASTEGI

IRTEERA

09:00. Arnedillo-Lodosara irteera. Gaztainondo jubilatutako elkarteak antolatuta.

BIDANIA-GOITZ

UDAZKENEAN, KULTURA KALEAN

18:00. *Bideak* dokumentala. Artzain baten jatorritik abiatuta, nafar mendietan barrena eginiko korrika erronka. Aritz Ganboa artzain eta protagonista eta Xabier Unanua zuzendaria bertan direla.

Bidania-Goiatzko herritarrentzat soilik antolatuta. Bidaniako elizan.

HERNIALDE

ROLLERSKI IGOERA

20. Hernialdeko Rollerski Igoera. Ohi bezala, irteera Skating esti-loan Tolosako Belate auzotik.

16:00. Klasikoan.

16:05. Hernialdeko Bentatik. Helmuga Hernialdeko plazan.

ORENDAIN

LASTERKETA

16:15. Eltxo Trail. Mikel Garmendiaren memoriala. Izen-emateak *Buscametas.com* webgunean eta informazioa *Eltxotrail.com* webgunean.

TOLOSA

JABETZE ESKOLA

10:00-14:00. *Autodefensa feminista jaietan eta gure bizitzetan*. Maitena Monroy Romero prestatzailearekin. Gaztelaniaz. Matrikulak 5 euroko kostua izango du. Kultur etxean.

XII. NAZIOARTEKO ZEINU

HIZKUNTZAKO ZINEMALDIA

10:15. Leidor zinema aretoaren ateen irekiera.

11:00. Jaialdiaren hasiera. *Aten*, *Cronos*, *Unic*, *La Maynade*, *El Circle*, *The Dolleta* eta *Hay dos idiomas* film laburrak ikusteko aukera izango da lehenengo, eta ordu erdiko atsedenaren ostean, *Te quiero pa*, *El seto*, *El novio perfecto*, *Lladres del Temps* eta *Fee-ling Through* eskainiko dituzte.

Ondoren. Sari banaketa egingo da, Leidorren.

14:30. Bazkaria, Botarri jatetxean egingo dute.

18:00. Granadako Isabel de las Herasen eskutik, *Cómo crear un cómic de Oreja Voladora* hitzaldia izango da, kultur etxean.

PINTXO-TOUR

11:00-14:00. VI. Pintxo-Tour interkulturala eta solidarioa, Zutani elkartearen eskutik. Alhondiga plazan.

BISITA GIDATU ANTZEZTUA

11:30. Txotxongilolaritza eta emakumea lotutako bisita gidatu berezia, Bularreko Minbiziaren Egunaren bueltan. Topic-en.

TXOTXONGILOAK

18:00. *Zuhaitzak landatzen dituen gizona*. Gorakada taldeak eskainita. Haur antzerkia, txotxongi-loak. Topic-en. **Irakurri erreportajea 26-29 orrietan*.

KONTZERTUA

22:00. Onki Xin Bonberenean izango da.

IKASTAROA

Larunbata eta igandea. Klown ikastaro trinkoa, Amaroako auzo-etxean, Zikloia 2021 egitarauaren barruan.

ZIZURKIL

IPUIN KONTAKETA

11:00. Ipuin kontaketa, *El infante y sus amigos*, Divina elkarteak deituta. Euskaraz eta igboz kontatuko dute. Ondoren, trentza tailerra izango da. Plazida Otaño liburutegian.

IGANDEA

URRIAK 24

AMASA-VILLABONA

ANTZERKIA

19:30. Tanttaka Teatroaren *Ameriketako bidaia*. Sarreraren prezioa: 8 euro. Miren Arrieta eta Nerea Mazo. Euskaraz. 90 minutu. Gurea antzokian.

ELDUAIN

IRTEERA

11:00. Gaztaina bila mendira irteera.

IRURA

IKUSKIZUNA

17:30. *Ipuin dantza*. Ipuina eta dantza uztartzen dituen ikuskizuna. «Ametsek eta Danbak (txotxongilo untxia) zoriontasuna topatu nahi dute. Baina zein kolo-rekoa izango ote da zoriontasuna? Lagunduko al diguzue bilatzen?». Oihane Vegarekin. Kulturunean.



TOLOSA

MENDI IBILALDIA

07:30. Alpino Uzturrek antolatuta mendi ibilaldia. Arantza - Ekaitza mendia (1.046 m) - Sunbilla mendi ibilaldia. Autobusa, San Frantzisko eliza aurreTIK.

OMENALDIA

11:30. La Agerre. Iñaki Lopetegiri omenaldia. Bakarkako erlojupekoa. 3 km.

ABESBATZA LEHIAKETA

19:00. 52. Tolosako Abesbatza Lehiaketa. Kontzertua: Requiem - G. Fauré. Hodeiertz & Oroith. Santa Maria elizan.

ASTELEHENA
URRIAK 25

AMASA-VILLABONA

IKT ASTEA

14:00-16:00. Hobetu zure irudia Interneten. Tailer praktikoa: Instagrameko berrikuntzak errepasatu eta sare sozial honetako edo

beste batzuetako argazki eta argitalpenei ahalik eta etekinik handiena ateratzeko, Canvarekin kartelak diseinatzeko, eta bezeroei Whatsapp bidez arreta ematen ikasteko... KZgunean.

TOLOSALDEA

IKT ASTEA

09:00-12:00. *Ticket BAI: berrikuntza aukerak identifikatuz.* Programaren ezarpenak ekarriko dituen berrikuntza eta inobazio aukerak identifikatuko dira. Lehiberrin.

17:00-19:00. *Publizitatea sare sozialetan.* Sare sozial ezberdinetan iragarkiak jartzeko dauden aukera ezberdinak irakatsiko dira, eta baita horiek sortzeko eta kudeatzeko dauden erremintak ere. Lehiberrin.

TOLOSA

IKASTAROA

16:00-18:00. Aurrez aurre. Libre-Office Impress. Zure aurkezpenak sortu. 4 ordu. Gaztelaniaz. KZgunean (musika eskolaren eraikina, beheko solairua). Rondilla, 34.



ZINEMA



CON QUIEN VIAJAS

Larunbata,
igandea eta astelehena (19:00).
Tolosa, Leidor.



ADIOS, IDIOTAS

Larunbata (19:30 eta 22:00) eta
astelehena (20:30).
Amasa-Villabona, Gurea.



OLTXIAK

Igandea (17:00)
Tolosa, Leidor.


HAZIZ HAZI, BASOA OSATZEN

Teatro Gorakada konpainiak bihar aurkeztuko du Topic aretoan 'Zuhaitzak landatzen zituen gizona' antzezlan. Jean Giono idazle frantziarraren istorioa antzezlanerako egokitu dute; Sandra Fdz Agirre eta Fran Lasuen antzezleek interpretatzen dute obra.

Irati Saizar Artola

Haurrei begirako, baina, aldi berean, publiko osoari zuzendutako antzezlan izango da bihar ikusgai Topic aretoan, 18:00etatik aurrera: *Zuhaitzak landatzen zituen gizona*. Teatro Gorakada konpainiak ondutako lana da; oholtzan, Sandra Fdz Agirre eta Fran Lasuen artistak arituko dira.

Bakardadean bete-betean sartuta dauden bi gizonen istorioa da. Artzaina da Elzeard Bouffier eta gogor egingo du lan bere bizilekua duen basoa berritu eta lurra salbatzeko. Alpeetako mendietan, Provenztatik gertu, ezer ez dagoen leku batetik zuhaitzen oasi bat sortuko du; lursail handi batean zuhaitzak landatzen hasiko da, haziz hazi, baso eder bat bilaka-



tu arte. Bestea, narratzailea, bere buruaren bila ari den gazte bat da, borondatea eta eskuzabaltasuna erresilientziarako tresna ezin hobeak direla deskubrituko duena. Bouffierrekin egingo du topo eta bakoitza bere buruarekin adiskidetzen saiatuko da, bere burua aurkitu nahian.

Atzean, Europako historiako gorabeherak, bi mundu gerrak, kontzientzia ekologikoaren sorrera edota politikaren diskurtso hutsala izango ditu, hori dena, «naturarekiko ulermenetik, gizakiaren indar

«Gizakia, momentu honetan, natura suntsitzen ari da, baina badaude inizatibak norbanakook egin ditzakegunak »

**MAIALEN
MAGUNAGOITIA**

sortzailetik eta zehaztasun txikiekiko maitasunetik kontatuta».

Ipuinetik antzezlanera

Jean Giono idazle frantsesaren ipuin alegoriko batean oinarritutako antzezlanana da. 1953an argitaratu zuen Gionok liburua eta hainbat hizkuntzataraz itzultako lana izan da. Aurten, otsailean, Salamancako Ciudad Rodrigo herrian gaztelaniaz estreinatu zuen antzezlanana Teatro Gorakada konpainiak; eta euskaraz, berriz, Durangoko San Agustin kultur gunean aurkeztu zuen.

Kike Diaz de Radak eta Jose Carlos Garciak egokitu dute antzezlanana. Maialen Magunagoitia ikus-entzunezko teknikaria da eszenan bertan, eta esan duenez, liburutik antzezpenera obra bat pasatzea «lan nekeza» den arren, «lan txukuna» egin dute. Istorio «interesgarria» iruditu zitzaien eta hortik egin dute antzezlanera pasatzeko hautua.

Oholtzan, nagusiki, bi lagunek hartzen dute parte: batetik, Sandra



Fdz Agirrek. Istorioa kontatzen duen narratzailea da bera, «istorio honek duen politena eta istorioaren emozioa transmititzen dituen». Eta bestetik, Fran Lasuen, Elzeard Buffierren papera antzezten duena hainbat momentutan, baina baita musikaria ere. Zuzeneko musika erabiltzen baitute obran zehar; besteak beste, arrabita eta biolina jotzen ditu eszenan.

Musikaz gain, errefortzu moduan ikus-entzunezko batzuk ere tartekatzen dituzte, Maialen Belaustegik egindako irudi eta bideo batzuekin. «Eszena indartzen duten irudiak» direla azaldu du teknika-

«Haurrak pertsona bizkorak dira, eta Gorakadak ez du bereziki testua haurrentzako moduan arintzen»

**MAIALEN
MAGUNAGOITIA**

riak. Espazioari dagokionean, linoleo txuri bat ipintzen dute, baita espagetiz egindako tela moduko bat ere. Zuhaitzak ere ez dira falta. Hazitik hasten dira hazten, pixkana, eta basoa irudikatzen duten zuhaitz multzoak dituzte oholtzan eta pantailako itzaletan.

1953an idatzitako istorioa izanagatik, antzezpenak «modernotik eta garaikidetik» baduela aitortu du Magunagoitiak. «Istorioa dagokion garaian kokatzen dugu, baina, egia esan, erabiltzen diren elementuak, jantziak eta bestelako materialak atemporalak dira».



Natura zaintzeko

Ingurunearen eta naturaren kontzientziaren inguruko istorioa da nagusiki *Zuhaitzak landatzen zituen gizona*. Eta hortik badu helburu bat antzezlanak ikusle-goa kontzientziatzeko, Magunagoitiaren arabera: «Gizartea, momentu honetan, natura suntsitzen ari da; baina badaude inizatibak norbanakook egin ditzakegunak; obra honetan ikusten den bezala, Bouffierrek berak bakarrik sortzen du basamortu bat baso». Horrelako inizatibak aurrera eramateko kontzientzietan eragin nahiko luketela esan du. «Gauza txikietatik hasita gauza handiak egin daitezke».

Biharko saioa, bereziki haurrei begira prestatutakoa da, baina Magunagoitiak adin ezberdinetako ikusleak gonbidatu nahi ditu. «Haurrak pertsona biz-

FITXA TEKNIKOA

Egilea: Jean Giono.

Egokitzapena: Kike Diaz de Rada eta Jose Carlos Garcia.

Zuzendaria: Jose Carlos Garcia.

Zuzendari laguntzailea: Kike Diaz de Rada.

Itzulpena: Idoia Barcelo.

Antzezleak: Patricia Fdz Agirre eta Fran Lasuen.

Musika: Fran Lasuen.

Argi diseinua: Ion Chavez.

Irudia: Maialen Belaustegi.

Eszenografia eta atrezzoak: Javi Tirado.

Jantziak: Ikerne Gimenez.

Argazkiak: Txelu Angoitia.

Diseinu grafikoa: Sofia Serrazina.

Zuzendaritza artistikoa eta exekutiboa: Alex Diaz.

Ekoizpena: Teatro Gorakada.

Administrazioa: Maite Lopez.

Komunikazioa: Maialen Magunagoitia.

korrak dira, eta Gorakadak normalean kontatzen dituen istorioetan, ez du bereziki testua edota hiztegia haurrentzako moduan arintzen». Egokitzapena haurrentzat bada ere, haurrak bizkorrek diren aldetik, obrak duen testua familientzako ere prestatuta dagoela dio. «Esaterako, ez dago abestirik guztiak dantzan hasiko direnik, baina badago landuta, haurrak adi-adi egon eta istorioan bertan sartzeko moduan».



IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGU RAL DIA

OSTIRALA

Hobetzeko joera izango du eguraldiak. Goizean zerua hodeitsu egongo da eta euri pixka bat izango dugu. Eguerditik aurrera pixkanaka atertzeko joera hartuko du, baina arratsalde erdi arte ez du erabat atertuko. Gauean ostarre batzuk zabalduko dira. Haizeak goizean iparraldetik joko du eta arratsaldean ipar-ekialdetik. Temperatura jaitsi eta balio altuenak ez dira 14-16 gradutik pasako. Gauean asko hoztuko du.

LARUNBATA

Giro eguzkitsua. Goizean behelaina agertuko da, baina goiz erdirako jasoko du eta eguraldi ederra geratuko da. Arratsaldean goihodeiren bat salbu, zeruan urdina nagusituko da eta eguraldi eguzkitsu batez gozatu ahalko dugu. Haizeak egunaren lehen zatian aldakor ibiliko da, arratsaldean ipar-ekialdetik finkatuko delarik eta temperatura igo egingo da, 17-18 gradutan joaz goia.

IGANDEA

Giro ederrarekin jarraituko dugu. Goizean zerua urdin agertuko da eta eguraldi eguzkitsua izango dugu. Arratsaldeko lehen orduetan ere antzeko joera izango dugu, baina azken orduetan men-debaldetik hodeiak ugaritu egingo dira, zerua zikinago agertuko delarik. Hala ere, ateri eutsiko dio eta eguraldi lasaia izango dugu. Haizeak hegotik joko du, tarteka harro xamar eta temperatura igo egingo da, 19-21 gradutan joaz goia.

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...*

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Prezioa

15,50€
45€
51€

Atarikideek

12€
33€
38€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

FARMAZIAK

URRIAK 22, OSTIRALA
IBARRA

Egunekoa. Leyre Lejeune Maset.
Euskal Herria, 24. 943 67 32 74.

URRIAK 23, LARUNBATA
IBARRA

Egunekoa. Juana Maria Sanchez.
Kale Berria, 34.
943 69 11 30.

URRIAK 24, IGANDEA

IBARRA

Egunekoa. Eudurne Mujika Martinez.
Euskal Herria, 3.
943 67 09 15.

URRIAK 25, ASTELEHENA
TOLOSA

Egunekoa. Eudurne Bengoetxea.
Kale Nagusia, 7.
943 67 06 48.

**EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO
FARMAZIA: TOLOSA.
LURDES AZPIROZ GALARZA.
LARRAMENDI, 6. 943 67 51 18.**

ZUZENEAN

Altuna III Vs Bengoetxea VI

Tolosako Beotibartik ZUZENEAN,
Ataria Irratian. Astelehenean,
17:00etatik aurrera, Lau eta Erdiko
Txapelketako partida erabakigarria.

ataria
irratia 107.6 fm
www.ataria.eus

hamaika
AKTUALITATEA · EUSKAL HERRIA ZUZENEAN · KULTURA DIGITALA · BIZIMUSIKA

ZUZENEAN / NAHIERAN



Instagram Twitter Facebook YouTube [LTD, Euskaltel]

#NikHamaika

hamaika.eus

**IRAGARRI HEMEN
ETA ESKUALDEAK
BUELTATUKO DIZU**

JARRI ZURE IRAGARKIA ATARIAN
publi@ataria.eus / 661 678 818


* Atarikideentzat eskaintza bereziak

* Itzulpena eta diseinua doan



AKAM
espazioa

akamespazioa.com
@akam.espazioa
info@akamespazioa.com
Kale Nagusia, 26 Villabona
943 53 96 52





ANOETA ITURTXULO

28 ETXEBIZITZA, GARAJE ETA
TRASTELEKU
AZKEN 2 ETXEBIZITZAK!

2 LOGELA ETA 2 BAINUGELA
BAJUAK, 30M2-KO TERRAZA
SUKALDEA BARNE
GARAJEA ETA TRASTELEKUA
AUKERAN

210.000 €
-tik hasita



BERASTEGI – ATEGI II

12 ETXEBIZITZA TASATU
3 LOGELA ETA 2 BAINUGELA
GARAJE IREKIA BARNE
EGIN ZURE ERRESERBA!

169.627€-tik hasita

